

2024/06/10

NEIKER

MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

www.neiker.eus

HARRERA LINGUISTIKOA EGITEKO PROTOKOLOA.

NEIKER



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

1 SARRERA

NEIKERera tantaka tantaka formazio prozesuetan dagoen ikasle eta langile berri asko etortzen da. Espero da langile berri horietatik asko elebidunak izatea eta gai izango direla hizkuntza ofizial bietan aritzeko. Beraz, etorrera hori aukera paregabea da euskararen erabilera indartzeko eta bai zerbitzu hizkuntzaren eta bereziki, lan-hizkuntzaren ardatzean aurrerapausoak emateko.

Era berean, NEIKERera badatoz ere Espainiako administrazioen eta bestelako erakundeen bidezko kontratuak dituzten kideak eta, oso gutxitan bada ere, ez euskaraz ez eta gaztelaniaz hitz egiten ez dakiten kideak ere. Euskara eta gaztelania bi hizkuntza propioak eta ofizialak direla, euskararen normalizazioaren alde lanean ari garela eta NEIKERen Hizkuntza Irizpideak ditugula azaltzeko aukera paregabea da hasierako etorrera.

Langile hasiberrien joera naturala egoera linguistikora lerratzea izango da; eta beraz, euskaraz ikasitakoa erabiltzeko aukerarik ez badago, denbora laburrean dauzkaten euskarazko gaitasun horiek galtzeko arriskua ere badago, langile euskaldun batzuen kasuan. Hori gertatzea ekidin nahi da ahalik eta neurri handienean eta horretarako neurriak hartuko dira. Bestalde, euskaraz batere ez dakiten langile berrientzat NEIKERen duten hasiera une aproposa da formakuntza jasotzen hasteko.

Gehienetan, langile berriak izango direnekin **lehen harremana e-posta** bidezkoa izaten da. Ondoren, aurrez-aurre NEIKERera datozenean, langile berriei harrera egiterakoan **harrera eskuliburua** banatzen zaie eta bertan NEIKERek duen kudeaketa sistema eta, besteak beste, euskararen kudeaketa eta hizkuntza irizpideen berri ematen zaie labur-labur. Honekin, euskararen normalizazioaren ikuspegia txertatu eta horretan lanean ari garela argi utzi nahi da.

Azkenik, langile berri hauek beraien lekuan kokatzen dira bertako arduradunaren ikuskaritzapean eta lankideekin harremana izaten hasten dira.

Hasierako harrera prozesu honek harrera linguistiko egokia suposa dezan protokolo hau idatzi eta kontuan hartuko da hemendik aurrera.

2 HELBURUAK

Prozedura honen helburu nagusia da NEIKERera datozen langile berriei NEIKERen hizkuntza irizpide batzuen arabera lan egiten dela jakinaraztea. NEIKERek baditu Hizkuntza aldetik obligazioak eta herritarrek eskubide linguistikoak dituzten neurrian, horrek NEIKEReko lankide guztiei eragiten diela jakinarazi nahi da.

Horretaz gain, lankide eta arduradunekin lan-harremanak euskaraz eraikitzeko gomendioa luzatu nahi da, horretarako baldintza egokiak ematen diren kasu guztietarako. Gainera, euskaraz ikasi eta lan egiteko dauden tresna ezberdinak eta laguntzak azaldu nahi dira.

Bide batez, baliabide informatikoak ere euskaratzen joatea helburua da.

3 HARRERA LINGUSTIKOA EGITEKO ARDURADUNAK

Harrera linguistikoaren protokolo hau idatzi aurretik harrera prozesua protokolarizatua zegoen NEIKERen eta **Baliabideetako Saileko kideek** daukate protokoloa aurrera eramateko ardura.

Harrera linguistiko hau lehendik ezarrita zegoen harrera prozesuan txertatuko da eta arduradun berberak izatea da proposena. Bestalde, Baliabideetako teknikariak Euskara dinamizatzaileari langile heldu-berrien inguruko informazioa eman eta hau haiekin harremanetan jarri eta NEIKEReko hizkuntz-politika eta euskararen inguruko baliabide eta ekintzen inguruko informazioa luzatzeko ardura izango du.

4 HARRERA LINGUSTIKOA EGITEKO PROTOKOLOAREN URRATSAK ETA EDUKIAK

4.1 NEIKERera heldu baino lehen

Langile berri askok NEIKERera etorri aurretik izan dute jada harremana (e-postaz edo eta telefonoz) NEIKEReko kide batzuekin, bereziki, Baliabideak Saileko kideekin. Beraz, oso garrantzitsua da hasierako harreman hori euskaraz egiteko aukera izatea. Horretarako:

- Lehenengo harremana **idatzizkoa** bada (e-posta bidez, adibidez) ele bietan idatziko zaio langile berriari. Harremana euskaraz izateko gonbidapena luzatuko zaio eta aukera hori lehenetsia dagoela argi utziko da. Erantzun horren arabera izango da ondorengo e-posten eta komunikazioen joan etorria, beti ere euskarako komunikazioa lehenetsiz.

- Lehenengo harremana **ahozkoa** bada, lehenengo hitza euskaraz izango da eta lehenengo elkarrizketa euskaraz hasi eta jarraituko da, langile berrien gaitasunaren arabera. Beti ere, NEIKEReko Baliabideetako Saileko kideek euskarazko aukera eman eta hau lehenetsia dagoela argi izan eta utziko dute.

4.2 Etorri berria hartzea

Baliabideetako kide zehatz batzuen ardura da harrera egitea. Horrekin, NEIKERera egiten den harrera (ahoz zein idatziz) euskaraz izatea bermatuko da.

- Lehen hitza euskaraz izango da, euskarazko harremanak hasieratik sor daitezen. Hau beti ere berarekin lehenengo harremana horrela izan bada.

- NEIKERen euskara zerbitzu-hizkuntza zein lan-hizkuntza normalizatua izan dadin lanean ari garela adieraziko da eta horretarako Hizkuntza-irizpideak ditugula azalduko da.

- Euskara dinamizatzailea heldu-berriekin harremanetan jarriko da eta NEIKEReko hizkuntza-politikaren eta ekintza ezberdinen berri emango die.

4.3 Euskara harrerako eskuliburuan

NEIKERera datozen langile berri guztiek jasotzen dute harrerako eskuliburua. Eskuliburu hau bai euskara, gaztelania zein ingelesez idatzita dago. Eskuliburuari atxikita dihoan informazioa ere hirueletan egongo da, lanpostu guztietako arriskuen prebentziorako fitxak barne.

Langile guztiek izango dute eskuragarri hiru hizkuntzetako bertsioa baina euskarazkoa lehentasunez eskeiniko eta emango da, baldintzek horrela komeni dela argi uzten duten guztietan.

Harrera eskuliburuan kudeaketarako beste zenbait informazioarekin batera gure hizkuntz irizpideak atxikituko zaizkio hauek garbi azalduz. NEIKERen, Eusko Jaurlaritzari atxikitutako erakunde bezala, Hizkuntza-irizpideak eta Hizkuntza politika daudela ezarrita eta ditugun betebeharrak linguistikoak zertara behartzen gaituzten azalduko zaie.

Harrera une honetan beteko da ere galdetegi linguistikoa.



NEIKERen Euskarari dagokion hizkuntza politika betetzen da.

Egun, VII. Plangintzaldian gaude. Hau 2023-2027 bitarteko tartean emango da.

NEIKERek euskararen kudeaketarako bost urterako **Plan Estrategikoak** eta hauek aurrera **eramateko Urteko Kudeaketa plan** zehatzak behar ditu. Hauetan formakuntza, motibazio zein sustapen helburuak zehaztuta egongo dira, besteak beste.

2022. urtean **Oinarrizko BIKAIN** Euskararen Kalitate ziurtagiria lortu zen euskararen normalizazioan egindako lanaren aitortza moduan.

Langile hitzarmenean jasota daude NEIKERek euskara ikasteko **diru-laguntzak** eskaintzen dituela lan kontratudunei.

Euskara Batzordea dugu NEIKERen euskararen erabilera sustatzeko eta bultzatzeko. Honen ardura da Euskara Planak eta Kudeaketa planak ezartzea. Euskara dinamizatzailer figura ere badaukagu.

NEIKERi 22/2021 Ebazpenean ezarrita dauden **Hizkuntza Irizpideak** jarraitzea dagokio eta horiek kontuan hartuta NEIKERek Hizkuntza-irizpide propioak onartuta ditu. Eusko Jaurlaritzak zehazten duenaren harira, hizkuntza irizpideek hainbat helburu nagusi dituzte:

- Bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko jarraibide orokorrak izatea
- Euskararen erabilera normalizatzea eta sustatzea, zerbitzu- eta baita lan-hizkuntza izan dadin
- Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea
- Euskara lankideen artean komunikatzeko geroz eta gehiago erabiltzen dugun tresna izatea

NEIKERen egun dagoen euskara erabilera ezagutza maila baino baxuagoa da.

Itzultzaile automatikoak eta beste teknologiak gure eskura ditugu. Eta NEIKEReko Euskara Batzordeak **Laguntza Kanala** eskaintzen du testu laburren orrazketa lanak egiteko.

Askok daukagu egiteke eta, zalantzarik gabe, gu guztion parte hartze aktiboarekin hobetzen joango gara.

4.4 Etorri berriari eskaintzekoak

-Langile etorri berriaren hizkuntza-gaitasuna neurtuko da eta dagokion euskara eskakizuna ezagutuko da. Langile berriaren beharrak aztertu eta hizkuntza-prestakuntzarako dituen aukerak azalduko zaizkio. Bereziki euskararekin kontakturik izan ez dutenei, oinarrizko formakuntza egitea animatuko zaie, erreztasun guztiak emanez (ordainketa, ordutegia eta abar).

-Euskaraz lan egiteko aukerak azalduko zaizkie: kanpo-baliabide (hiztegi terminologikoak) eta lan-tresnen berri emango zaie (itzultzaile automatikoak...). Baita NEIKERekoak berariazkoak direnei buruz ere (Intranet-a, langileen ataria...).

-Euskara Batzordearen eta euskara dinamizatzailearen laguntza eskeiniko da.

-Langileak sortuko dituen euskarazko idatziak zuzentzeko laguntza eskeiniko da (Intraneten aukeran dago Laguntza Kanalera jotzeko esteka).

-Lan hitzarmenean langileek dituzten diru-laguntzak eta formakuntza planean euskaraz ikasteko dauden aukerak azalduko dira.

-Baliabide informatikoak euskaraz jartzeko aukera lehenetsiko da euskara-gaitasuna duten langile berrientzat.

-Harreran azaldu eta eskainitako guzti hauetaz gain euskara dinamizatzailea harremanetan jarri eta ekintza, aukera eta baliabide ezberdinen berri emango die heldu-berriei.

-Heldu-berriei galdetegi bat luzatuko zaie ezagutza eta erabilera gaitasun eta ohituren inguruko galderekin.

5 DOKUMENTU-ITURRIAK

-NEIKER. 2023. Harrera eskuliburua.

-EUSKO JAURLARITZA. 2019. Eusko Jaurlaritzako Sail eta Erakunde Autonomiadunetan langile etorri berriei Harrera Linguistikoa Egiteko protokoloa. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila.

HARRERA LINGUISTIKOAREN GALDETEGI LINGUISTIKOA

NEIKERen lanean hasi zinenean egin zizuten harreran, harrera linguistikoaren inguruan duzun iritzia jaso nahi dugu. Aldez aurretik, eskerrik asko emango diguzun laguntzagatik.

Izen-abizenak:	Zentrua: Arkauti / Derio
Lanpostua:	Saila:
Data:	

1	NEIKEReko Euskararen Plan Estrategikoaren inguruko informazioa jaso duzu:	Bai	Ez
1.1	Materiala eman edo non kontsulta dezakezun azaldu dizute?	Bai	Ez
2	Hizkuntza-irizpideak azaldu dizkizute?	Bai	Ez
2.1	Materiala eman edo non kontsulta dezakezun azaldu dizute?	Bai	Ez
3	Argi azaldu dizute zein hizkuntza erabili behar duzun kasu hauetan?		
3.1	Herritarrekiko harremanetan	Bai	Ez
3.2	Barne funtzionamenduari dagozkion harremanetan	Bai	Ez
3.3	Beste bezero eta administrazioekiko harremanetan	Bai	Ez
4	Hizkuntza-prestakuntzarako eta trebakuntzarako dituzun diru-laguntzen berri eman dizute?	Bai	Ez
5	Euskara Batzordearen berri eman dizute?	Bai	Ez
5.1	Euskara Batzordeak abian duen Laguntza-Kanalaren berri eman dizute?	Bai	Ez
6	Zein da ziurtatu dezakezun zure euskara-eskakizuna?		
7	Erabiltzen al duzu euskara zure egunerokotasunean?	Bai	Ez
7.1	Ahoz?	Bai	Ez
7.2	Idatziz?	Bai	Ez
8	Zein hizkuntzatan dituzu harremanak NEIKEReko zure lankideekin	☐ Beti edo ia beti gazteleraz ☐ Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago ☐ Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste ☐ Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago ☐ Beti edo ia beti euskaraz	
9	Zein hizkuntzatan dituzu harremanak Baliabideak saileko zure lankideekin (Administrazioa...)	☐ Beti edo ia beti gazteleraz ☐ Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago ☐ Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste ☐ Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago ☐ Beti edo ia beti euskaraz	
10	Harrera linguistiko honek eragina izango du zure jokabide linguistikoetan (zure lana euskaraz egiteko, zure lankideekin euskaraz hitz egiteko)?: (baloratu 0tik (batere eraginik ez) 10era (erabateko eragina))	☐	

OHARRAK ETA IRADOKIZUNAK:

